

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jardueretako bat pultxera diseinatzea da. Pultserak erloju baten itxura du baina barruan pantaila digitalik izan ez arren zortzi gezi dituen sistema bat du. Bestalde, pultsera duen pertsona gertuen dagoen lagunaren norabiderantz zuentzeko sentsorearen funtzionamendua pentsatzen eta frogatzen da. Hemen, enpresaren ideia nagusia garatu egiten da; horregatik, ezin da kanpoko enpresen esku utzi enpresak egin behar du.

Bestetik, pultxeren ekoizpena eta montaketa ere funtsezko jarduerak dira. Bestalde, pultxeraren piezen fabrikazioa eta sentsoreak txertatu egiten dira. Ekoizpenaren zati batzuk kanpoko enpresek egin ditzaketen arren, produktuak ekitaldi handietan ondo funtzionatzen duela ziurtatzeko kalitate kontrola gure enpresak egingo du.

Beste jarduera garrantzitsu bat pultxeren pertsonalizazioa da. Bezeroek aukera izango dute pultxera beraien gustura diseinatzeko, koloreak, materialak eta diseinu orokorra aukeratzuz. Honek abantaila gehiago ematen dizkio produktuari, batez ere lagun taldeentzat edo talde berezientzat.

Horrez gain, plataforma digitalaren kudeaketa ere funtsezkoa da. Bertan pertsonak elkarrengandik gertu daudenean ondo aktibatzea kontrolatzen da, lagunaren arteko loturak egiten dira eta erabiltzaileen datuak modu seguruan kudeatzen dira. Era berean, enpresaren webgunea mantentzea beharrezkoa da, informazioa emateko eta produktua saltzeko.

Azkenik, banaketa eta salmenta jarduerak ere ezinbestekoak dira. Hasieran, pultxerak Madrilen eta Bartzelonan banatuko dira, batez ere festibaletan eta kontzertuetan. Ondoren, Espainia osora zabaltzea eta etorkizunean beste herrialde batzuetara iristea gure helburua da. Horrez gain, bezeroarentzako arreta eta sor daitezkeen arazoen konponketa ere enpresak egunero izango ditu kontuan.

Laburbilduz, gure enpresaren funtsezko jarduerak produktuaren diseinua, ekoizpena, pertsonalizazioa, plataforma digitalaren kudeaketa eta banaketa dira. Jarduera horiek guztiak beharrezkoak dira gure idea arrakastatsua izateko.